

Txirrindularitza Frantziako Tourra

# Garaipenik pozgarriena

*Lance Armstrong nagusi aitzin-etapan, Alex Zulle eta Abraham Olanoren aurretik*

Bianditz Iraola / Donostia

LANCE ARMSTRONG US Postal taldeko amerikarrak irabazi zuen aurtengo Tourreko aitzin etapa. Etapak zituen 6'8 kilometroak betetzeko zortzi minutu eta bi segundu behar izan zituen, Alex Zullek, bigarren sailkatutak baino zazpi segundu gutxiago.

Armstrong kontuan izateko txirrindularia zen, baina gutxi esperoko zuen etapa irabaziko zuela. Dena dela txirrindulari indartsua da eta gaitza gainditu zuenetik hona gogo handiagoa jartzen du parte hartzen duen alde guztietan. Horrela bada, ez da harritzekoa atzo etapa berak irabazi izana.

Faboritoei dagokienez beste ezusteko bat, Alex Zullek eman ziguna. Catalunyako Volta utzi ondoren ez genekien nola iritsiko zen Tourrera. Atzo erakutsi zuen ondo aurkitzen dela eta aurrean egon daitekela, baina oraindik forma pixka bat falta zaio.

Gure ordezkari nagusia, Abraham Olano, fin aritu zen eta proba erdian denbora onena markatu zuen. Irabazlearekiko zazpi segundu bakarrik galdu zituen. Irabazteko faboritoetako bat zen eta hirugarren postu hori ez da batere txarra.

Kale egin zuen faborito nagusia Credit Agricoleko Chris Boardman izan zen. Inon tankera honetako etapetan espezialistarik bada hori Boardman da, baina atzo ez zuen ohiko neurria eman.

Huts egin zuen beste bat Espainiako txapelduna izan zen. Angel Luis Caserok denbora dextente galdu zuen kontutan hartuz bakarkako lanean ondo moladtzen dela. Etapa amaieran berak ere onartu zuen denbora asko galdu ez bazuen ere onene-gandik gertuago egotea espero zuela.

Eskalatzaile onenek, Virenque, Gotti, Tonkov, Garzelli eta Escartinek, 50 segundu inguru galdu zituzten, beraz mendian borroka handia izango da. Talde honetan denbora gutxien Manolo Beltranek galdu zuen, 44 segundu, eta besteek ainako izenik ez badu ere kontuan hartzeko gizona da.



Lance Armstrong atzoko erlojupekoak zuen aldapa igotzen.

MONDELO/ EFE

**SARRERAKOAK** Tour osoan duen eragina, ur-tanta batek itsasoan izan lezakeenaren antzekoa bada ere, uste dut atzokoak, egunen joan-etorriak erakutsiko digunaren ezaugarri bereitsuak izan zituela; ur-tantak eta itsasoak, gazi bera baitute. Alegia, eta asko ez bada ere, zerbait kendu dakioke atzoko sarrerakoari aurrerantzean Tourrean ikus dezakeguna iragartzen ausartzeko; nahiz eta, horretarako, aurtan ausardia handia behar.

Garailearengandik hasita, ikusi zen ezustekoak inoiz baino leku handiagoa

## Askok ez bada ere, zerbait

Xabier Usabiaga

izango dutela Parisa bitartean. Alex Zulle aztertuz, ezer ez da harrigarria, ez atzokoa, ez hurrena izan dezakeen deskalabroa.

Eskalatzaile gehientsuenak zaku berean sartu daitezke, Guerinek, Gottik, Garzelli, Escartinek, Virenque eta Boogerdere erlojupean duten zuloa bis-

taratu zutelako. Eta hori gabezia larriegia izango da, mendian euren arteko aldea ez delako handia.

Salbuespena, eskalatzaileen artean, Laurent Dufaux eta Pavel Tonkov izan ziren, ohiko atzerapena baino handiagoa ez zutelako izan; eta hori abantaila dextente izan daiteke.

Jullichek, berriz, badirudi orekaren indarra galdu duela; hots, indar guztia galdu du. Iaz, erlojupeko eta mendi akabera guztietan lehen bostetan sailkatu baitzen, eta horri zor dio podiumeko hirugarren postua.

Eta, azkenik, Olanoren jarduna ere deigarria izan zen. Balorazioa ona da oro har, baina haren aukerei hatzamarra egin nahi gabe, atzoko muinoak etorkizuna iragartzen badu ez da seinale ona. Maldatxoaren 600 metroetan, Olanok 10 segundoko atzerapena izan baitzuen Armstrongekiko.